

2017KO URTARRILAREN 16AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpirak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2016KO IRAILAREN 19KO ETA URRIAREN 3KO BILKUREN AKTAK).

2.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA BERRITZEKO AKORDIOAREN ATXIKIMENDUA.

3.- PARKETXE SAREAREKIN LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Juan José Gorrochategui Larrea Jna. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Legezko kide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2016KO IRAILAREN 19KO ETA URRIAREN 3KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2016ko irailaren 19ko eta urriaren 30eko aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da bestelako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO JASANGARRITASUNERAKO KONPROMISOA BERRITZEKO AKORDIOAREN ATXIKIMENDUA.

Zegamako Udalak jasangarritasun prozesuen aldeko konpromisoa azaldu du, Udala Tokiko Agenda 21 ezarriz.

Hala, tokiko konpromisoaren bidez jasangarritasun globalaren alde egiteko etengabeko hobekuntza-prozesua jarri du abian. Eginkizun horretan, udaletako Tokiko Agenda 21ak indartzea helburu duen Sareko kide izateak dakartzan onurak azpimarratzen ditu Udalak.

Horrenbestez, Zegamako Udalak 2017ko urtarrilaren 16an, Euskal Autonomia Erkidegoaren jasangarritasunaren aldeko «Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea» Konpromisoa berritzeko Akordioa, 2016ko apirilaren 27an onartutakoa, berrestea HITZARTU du.

Aurrez adierazitakoarekin bat, Zegamako Udalak, aho batez, ADIERAZTEN DU:

“2016ko apirilaren 27an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Jasangarritasunerako Konpromisoa berritzeko Akordioa ”Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea” dokumentuari atxikimendua agertzen diola eta bere gain hartzen dituela akordio horretatik eratorritako erantzukizunak”.

eta izendatzen du:

- Joseba Izagirre Arozena (*Alkatea-alkatea@zegama.eus*), arduradun politikoa eta Izaskun Igoa Arizkorreta (*Zegama Lantzen taldeko zinegotzia –izaskun@zegama.eus*) ordezkari moduan.
- Ederne Albizu Ormazabal (*kultura@zegama.eus*) arduradun teknikoa.

3.- PARKETXE SAREAREKIN LANKIDETZA HITZARMENAREN ALDAKETARI BURUZKO ERABAKIA.

Espedientea ikusirik.

2010eko urriaren 20an ZEGAMAKO UDALAK eta GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAK lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, Zegaman (Gipuzkoan) Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalaren inguruan, dagoen Anduetza Baserrian herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu publikoa ezagutarazteko, era horretan Zegamako Andueza baserriko interpretazio zentroa, zuhaitzei eta egurrari buruzkoa, Gipuzkoako Parketxe Sarearen komunikazio eta

gizarteratze proiektu eta programetan txertatzea erraztuz, eta egiazki txertatuz, hartara haren zabalkundea Sareko Parketxeekin modu bateratuan eginez.

Era berean, 2014ko martxoaren 20an ZEGAMA KO UDALAK eta GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAK lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, Zegaman (Gipuzkoan) Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalaren inguruan, dagoen Anduetza Baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroak herritarrei ematen dien zerbitzu publikoa antolatzeko eta haren kalitatea hobetze aldera.

Une honetan, adierazitako lankidetzaren hitzarmenaren aldaketa bideratzea adostu da, bereziki, bi aldeek konpromisoak eta araubide ekonomikoa egokituz.

Hitzarmenaren xedea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Zegamako Udalaren eta Gipuzkoako Parketxe Sarearen arteko jarraian adierazten den hitzarmena onartzea:

“ ZEGAMA KO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA

Zegaman, 2016ko ren ean.

ONDOKOAK BILDU DIRA:

Batetik, Joseba Izagirre jn NANaren titularra, Zegaman (Gipuzkoan) egoitza eta P-2002600A IFZ dituen **ZEGAMA KO UDALAREN** izenean eta ordezkari gisa.

Bestetik, Ainhoa Aizprua and., NANaren titularra, Donostiako Gipuzkoa Plaza z.g. helbidean egoitza eta G-75017863 IFK dituen **GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA**ren izenean eta ordezkari gisa.

LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta, horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

- I. Zegamako udalerria inguruko baso eta mendiei hertsiki lotuta bizi izan den herri bat da. Zegamarren bizi iturri nagusi basoa izan da aspaldiko mendeetan. Hala, Zegamako Udalak basoei gorazarre egin eta esker ona erakusteko zuhaitzei eta egurrari buruzko Interpretazio Zentroa sortu du Anduetza Baserrian. Interpretazio Zentro honen helburua, Euskal Herriko nahiz atzerriko zuhaitz eta zuhaixken egurraren ezaugarri eta erabilerak ezagutaraztea da. Hainbat zuhaitz espezieren 173 enbor daude ikusgai bertan. Enborren bildumaz gain, besteak beste, enborren egitura eta Gipuzkoako basogintza-zerbitzuen

historia azaltzen dituzten zenbait ohol, basoko langileek eta sute taldeek erabilitako tresnen erakusketa txiki bat eta basogintzari buruzko DVD bat ikus daitezke. Interpretazio zentroa Zegamako herrigunean dago, San Bartolome auzoko Andueza baserrian, Aizkorri mendia gailen duela, eta Zegamako herria bere oinetara.

Hala, 2010eko urriaren 20an ZEGAMAKO UDALAK eta GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAK lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, Zegaman (Gipuzkoan) Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalaren inguruan, dagoen Anduetza Baserrian herritarrei eskaintzen zaien zerbitzu publikoa ezagutarazteko, era horretan Zegamako Andueza baserriko interpretazio zentroa, zuhaitzei eta egurrari buruzkoa, Gipuzkoako Parketxe Sarearen komunikazio eta gizarteratze proiektu eta programetan txertatzea erraztuz, eta egiazki txertatuz, hartara haren zabalkundea Sareko Parketxeekin modu bateratuan eginez.

Berebat, 2014ko martxoaren 20an ZEGAMAKO UDALAK eta GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAK lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten, Zegaman (Gipuzkoan) Aizkorri-Aratzeko Parke Naturalaren inguruan, dagoen Anduetza Baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroak herritarrei ematen dien zerbitzu publikoa antolatzeke eta haren kalitatea hobetze aldera.

- II. GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOA (aurrerantzean **GPS**) erregimen juridiko pribatuko fundazioa da, 12/1994 Legearen, ekainaren 17koaren, Euskal Autonomia Elkarteke fundazioei buruzkoaren arabera erregulatzen dena. Hala ere, sektore publikoko fundazioa da, eta Gipuzkoan Parketxe Sarea sortzea, bultzatzea eta hedatzea du helburu, parketxeak irizpide homogeneoen arabera kudeatzeko eta dinamizatzeko. Aipatutako Parketxe Sarearen bitartez, GPS Fundazioak ingurumen hezkuntza, inguru naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzeko balioak bultzatzen ditu, naturarekin lotutako ekintzak eta ingurumenarekin harmonian dauden aisialdiko jarduerak sustatzeaz gain.
- III. Hitzarmen honetan hainbat aldiz aipatuko den *Gipuzkoako Parketxe Sareak*, zehazki, Pagoetako, Aralarako, Aizkorri-Aratzeko eta Aiako Harriko parke naturaletan edo haien inguruan dauden parketxeak zein interpretazio zentroak eta horiekin lotutako gainerako kultura instalazioak biltzen ditu.
- IV. Aldeek uste dute elkarren arteko lankidetzak bien helburuak lortzen lagunduko diela, beraz, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dute, eta honako hauen bidez eraenduko da:

ESTIPULAZIOAK

Lehen.- Hitzarmenaren helburua

Adierazitakoari jarraiki, hitzarmen honen helburu nagusia ZEGAMAKO UDALAREN eta GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN arteko lankidetzaren antolatzea da, Zegamako udalerrian (Gipuzkoa), Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroak herritarrei ematen dien zerbitzu publikoaren kalitatea hobetze aldera.

Bigarrena.- GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAK hartzen dituen konpromisoak

Dokumentu hau sinatzean, GPS Fundazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu, hitzarmen honetako helburua edo xedea lortze aldera:

- a) GPS fundazioak Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroa Gipuzkoako Parketxe Sareko proiektuen eta programen parte izatea erraztuko du eta partaide moduan sartuko du, sareko gainerako parketxeekin koordinatuta kudea dezaten, Arantzazuko (Oñatiko) Gandiaga II topagunea izeneko eraikinean dagoen Interpretazio Zentroarekin bereziki, bien artean Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Parketxe Hedatua osatuz. Kudeaketa integratuaren jarduera GPS fundazioak zuzenduko du.
- b) GPS fundazioak honako ardurak hartuko ditu bere gain: Anduetza baserrian dagoen Parketxe edo Interpretazio Zentroa dinamizatzeaz, hau da, ezaugarri horietako zentro bati dagozkion kultura, gizarte edota aisialdi jarduerak antolatzeaz, (bisitaldi gidatuak, aldizkako irteerak, ekitaldiak antolatzea, material didaktikoa prestatzea, etab.) eta bisitariak artatzeaz. Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroa dinamizatzeko GPS fundazioak egiten dituen jarduera guztiak ingurumen hezkuntza, inguru naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzeko balioak bultzatuko ditu, naturarekin lotutako ekintzak eta ingurumenarekin harmonian dauden aisialdiko jarduerak sustatzeaz gain.
- c) GPS fundazioak ZEGAMAKO UDALAREN laguntza eta aholkularitza jasoko du parketxea dinamizatzeko eta publikoa artatzeko zerbitzuen hautaketa, esleipen eta kontratazio prozesuetan. ZEGAMAKO UDALAREN ordezkari batek zerbitzuak kontratatzeke mahaietan parte hartuko du.
- d) GPS fundazioa ZEGAMAKO UDALAREKIN elkarlanean aritu ahalko da Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroaren kudeaketa administratiboaren eta ekonomikoaren zerbitzuak –hitzarmen honetako 3.a) klausulan zerrendatutakoak– hautatzeko, esleitzeko eta kontratatzeke prozesuetan. Halaber, kontratazio pleguen baldintza teknikoak idazten parte hartu ahal izango du, baita hautagaiak aukeratzeko prozesuetan ere.
- e) Aurreko paragrafoetan adierazitako funtzio guztiez GPS fundazioa arduratu ahalko da, zuzenean edo GPS fundazioak azpikontratatu dituen hirugarrenen bitartez.
- f) Era berean, GPS fundazioak Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroan ZEGAMAKO UDALAK gauzatzen dituen interes orokorreko jardueretan ekonomikoki parte hartuko du, hitzarmen honetako laugarren klausulan azaltzen den moduan.

Hirugarrena.- ZEGAMAKO UDALAK hartutako konpromisoak

Dokumentu hau sinatzean, ZEGAMAKO UDALAK honako konpromiso hauek hartzen ditu, hitzarmen honetako helburua edo xedea lortze aldera:

- a) ZEGAMAKO UDALA Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroaren ohiko jardueraren kudeaketa administratiboaz eta

ekonomikoaz arduratuko da. Besteak beste, ondoko zeregin hauetaz arduratuko da ZEGAMAKO UDALA, bere kontura eta arriskura:

1. Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroako administrazio-kontularitza zerbitzuak kontratatzea.
 2. Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroaren garbiketa eta mantentze zerbitzuak kontratatzea.
 3. Ur, elektrizitate, klimatizazio, komunikazio, informatika eta gainerako hornikuntza zerbitzuak kontratatzea.
 4. Instalazioak administratzeko, zaintzeko eta egoera onean edukitzeko zerbitzuak kontratatzea.
 5. Instalazioetan izandako istripuetarako erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea. Halaber, Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroko instalazioen (edukitzailea) eta funtsen (edukia) balioaren aseguruak kontratatuko du.
 6. Parketxean egiten diren jarduera guztiak gauzatu ahal izateko baimenak eta gaikuntzak izapidetzea eta lortzea, indarrean dagoen legediaren arabera.
 7. Oro har, higiezinekin lotutako bestelako ondasunak eta zerbitzuak ZEGAMAKO UDALAK kontratatuko ditu.
- b) Aurreko guztiari kalterik egin gabe, Anduetza baserriko Parketxe edo Interpretazio Zentroak GPS fundazioak adierazitako Gipuzkoako Parketxe Sarearen proiektuetako eta programetako parte izaten lagunduko du, ZEGAMAKO UDALAK sozietate publikoak egiten dituen kudeaketa jardueren bidez. Hala, sareko gainerako parketxeekin koordinatuta kudeatuko dute, III. adierazpenean azaldu bezala.
- c) ZEGAMAKO UDALAK GPS fundazioaren ildoak eta aholkularitza teknikoak aintzat hartuko ditu, Anduetza baserriko Parketxe edo Interpretazio Zentroaren sustapenari dagokionez.
- d) ZEGAMAKO UDALAK sozietate publikoak GPS fundazioak adierazitako Gipuzkoako Parketxe Sarearen irudi korporatiboari eutsiko dio beti, eta beharrezko koordinazio baliabideak erabiliko ditu erabiltzaileek Gipuzkoako Parketxe Sarea osatzen duten gainerako parketxeen eta interpretazio zentroezen goza dezaten.
- e) ZEGAMAKO UDALA GPS fundazioarekin elkarlanean arituko da, azken horrek eskatzen dionean, parketxea dinamizatzeko eta publikoa artatzeko zerbitzuak hautatzeko, esleitzeko eta kontratatzeko prozesuetan.
- f) Anduetza baserrian dagoen zuhaitzei eta egurrari buruzko interpretazio zentroko jarduerak bultzatzeko, hirugarrenek laguntza publikorik edo pribaturik emanez gero, ZEGAMAKO UDALAK aldian-aldian jakinarazi egingo dio GPS fundazioari.

Laugarrena.- Araubide ekonomikoa

a) GPS fundazioak urtean gehienez 60.000 euro bideratuko ditu Anduetza baserriko Parketxe edo Interpretazio Zentroa dinamizatzeko eta publikoa artatzeko zerbitzuetara; hemen sartzen dira ingurumen hezkuntza, inguru naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzeko balioen hedapena sustatzeko beharrezko gastuak eta publizitatea, baita

naturarekin lotutako eta inguru naturalekin harmonian dauden aisialdiko jardueren promozioa ere. Halaber, GPS fundazioak, ZEGAMAKO UDALAK haiek zuritu ondoren, urtean gehienez 20.000 euro bideratuko ditu ZEGAMAKO UDALAK hitzarmen honen hirugarren estipulazioaren a) puntuan biltzen diren harturiko konpromisoetatik sorturiko gastuei aurre egiteko.

b) ZEGAMAKO UDALAK GPS fundazioren aurrekontu arruntera urtero 20.000 euroko ekarpena egingo du gutxienez. GPS fundazioak kopuru hori hitzarmen honen hirugarren estipulazioaren a) puntuan biltzen diren harturiko konpromisoetatik sorturiko gastuei aurre egiteko bideratuko dira, eta horretarako ZEGAMAKO UDALAREN esku jarriko dira, aldeztatik egiazki egindako gastuak zuritu ondoren.

c) Bai sarreraren salmentarekin lotutako bai Anduetza baserriko Parketxe edo Interpretazio Zentrotik kanpo edo haren barruan buruturiko ingurumen hezkuntza, inguru naturalaren ezagutza eta ingurumena errespetatzeko balioen hedapena sustatzeko edo naturarekin lotutako eta inguru naturalekin harmonian dauden aisialdiko jardueretatik datozen diru-sarrerak GPS fundazioentzat izango dira eta honek Anduetza baserriko Parketxe edo Interpretazio Zentroa dinamizatzeko eta publikoa artatzeko zerbitzuak, publizitatea edota Aizkorri-Aratzeko parke naturalaren eremuan beharrezkotzat jotzen duen beste edozein gastu ordaintzera bideratuko ditu.

d) Sarreraren prezioak GPS fundazioak ezarriko ditu, prezioak gainerako parketxe edo interpretazio zentroetakoekin parekagarriak izatea zainduko duelarik.

Bosgarrena.- Segimendu Batzordea

Aldeek hitzarmen honen Segimendu Batzordea sortzea hitzartu dute. Lau kidez osatuta egongo da, eta bi aldeek ordezkariak parekidea izango da. Hau da, ZEGAMAKO UDALAK eta GPS fundazioak bi kide izendatuko dituzte.

Segimendu Batzordearen zeregin nagusia hitzarmen hau betetzen dela zaintzea eta kontrolatzea izango da, baita hitzarmena aplikatzean sor daitezkeen gatazkak hasieratik konpontzen saiatzea ere.

Batzordeak ez du berezko nortasun juridikorik. Aldeek elkarren arteko dialogoa errazteko, gatazkak konpontzeko eta elkarlana sustatzeko foro gisa sortu dute.

Segimendu Batzordea aldeek egokitzat jotzen dutenean bilduko da eta funtzionatzeko bere sistema ezarriko du.

Seigarrena.- Lankidetzaren hitzarmenaren iraupena

Lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen duten egunean bertan jarriko da indarrean, eta 2017ko abenduaren 31 arte iraungo du.

Hitzarmenaren indarraldia amaitu aurreko 30 egun naturaletan, aldeek ez badute aurkakorik jakinarazten espresuki, beste urte natural batez luzatuko da adierazi gabe.

Zazpigarrena.- Araubide juridikoa eta aplikazio juridikoa

Hitzarmen hau interpretatzean edo aplikatzean sor daitekeen edozer eztabaida edo gatazka konpontzeko, aldeek lehenik Segimendu Batzordearengana, bosgarren estipulazioaren bidez sortzen denarengana, joko dute.

Besterik ez bada, aldeek dagokien jurisdikzioari uko egin eta Donostiako epaitegian konponduko dituzte gatazka horiek.

Eta adierazitako guztiarekin ados daudenaren froga gisa, bildutakoek dokumentu honen bi kopia sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.”

Bigarrena.- Erabaki hau doakienei jakinaraztea.

4.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 04/01116 erabakia, azaroaren 17koa, 1162 fakturen erlazioa onartuz, guztira 77.899,69 eurokoa.
- 05/01116 erabakia, azaroaren 18koa, Ostatua eta Kasinoko urriko alokairu fakturak onartuz.
- 06/01116 erabakia, azaroaren 23koa, Ainara Arrieta Aranzak ariketa hipopresiboak bideratzeko egindako eskaera onartuz.
- 07/01116 erabakia, azaroaren 28koa, zenbait eraikinen iraunkortasun energetikoaren ziurtagiria bideratzeko lana Dena Arkitektura enpresari, 1095,05 eurotan (BEZ barne) esleituz.
- 08/01116 erabakia, azaroaren 28koa, Zegamako Udalean, 2012ko apirilaren 4an aurkeztutako administrazio-isiltasunaren ondorioz ondare-erantzukizun erreklamazioaren gaitzespenaren aurka, 344/2016-A prozedura laburtua zenbakidun Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan demandatu bezala azaltzea erabakiz.
- 09/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1244 fakturen erlazioa onartuz, guztira 3.643,50 eurokoa.
- 010/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1328 fakturen erlazioa onartuz, guztira 15.477,83 eurokoa.
- 011/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1325 fakturen erlazioa onartuz, guztira 11.430,34 eurokoa.
- 012/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1321 fakturen erlazioa onartuz, guztira 70.633,33 eurokoa.
- 013/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1341 fakturen erlazioa onartuz, guztira 18.789,96 eurokoa.

- 014/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1350 fakturen erlazioa onartuz, guztira 2194,62 eurokoa.
- 015/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1357 fakturen erlazioa onartuz, guztira 8.407,08 eurokoa.
- 016/01116 erabakia, azaroaren 29koa, 1370 fakturen erlazioa onartuz, guztira 22.471,50 eurokoa.
- 017/01116 erabakia, azaroaren 30ekoa, mendi bidea erabiltzeko fidantza itzultzea eskatuz.
- 018/01116 erabakia, azaroaren 30ekoa, zenbait peoi lan burutzeko langileen kontratazioa onartuz.
- 019/01116 erabakia, azaroaren 30ekoa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 01/01216 erabakia, abenduaren 13koa, biomasa galdararen obra zibilari buruzko fakturretan agertutako akatsen zuzenketa onartuz.
- 02/01216 erabakia, abenduaren 13koa, Goierri Turismoa S.L.k, Mendi Maratoiaren barnean, hau streaming bidez eskaintzeko emandako 3000,00 euroko laguntza bideratuz.
- 03/01216 erabakia, abenduaren 15ekoa, 1507 fakturen erlazioa onartuz, guztira 17.138,99 eurokoa.
- 04/01216 erabakia, abenduaren 16koa, Ostatura eta Kasinoko alokairu fakturak bideratuz (azaroa).
- 05/01216 erabakia, abenduaren 19koa, 344/2016-A prozedura laburtua zenbakidun Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan abokatu eta prokuradorea izendatuz.
- 06/01216 erabakia, abenduaren 21ekoa, gimnasioko erabilpenaren ondoriozko tasen likidazioak onartuz (urria-azaroa).
- 07/01216 erabakia, abenduaren 23koa, 1607 fakturen erlazioa onartuz, guztira 18.718,83 eurokoa.
- 08/01216 erabakia, abenduaren 23koa, 1624 fakturen erlazioa onartuz, guztira 17.558,64 eurokoa.
- 09/01216 erabakia, abenduaren 23koa, 1507 fakturen erlazioa onartuz, guztira 17.138,99 eurokoa.
- 010/01216 erabakia, abenduaren 23koa, 1625 fakturen erlazioa onartuz, guztira 6.191,40 eurokoa.

- 011/01216 erabakia, abenduaren 23koa, 1663 fakturen erlazioa onartuz, guztira 2.664,62 eurokoa.
- 012/01216 erabakia, abenduaren 23koa, zenbait faktura, nomina, pentsio eta bestelako batzuen ordainketa onartuz.
- 013/01216 erabakia, abenduaren 23koa, 1646 fakturen erlazioa onartuz, guztira 7.246,99 eurokoa.
- 01/0117 erabakia, urtarrilaren 9koa, Enea Estrategias para la Sostenibilidad S.L. enpresak, "Zegamako Agenda 21 programaren berrikuspena" kontratuari aurre egiteko aurkeztutako bermea itzultzea erabakiz.

5.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira egiten.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpirak eta berrogeta bost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2017kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2017.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO